


# Artelanak


Artelan asko museoetan daude. Ez denak, hala ere, beste batzuk kanpoan baitaude.

Gure komunitatean, artelan asko Nafarroako Museoan daude.




1. Beha ezazu artelan hau. Zer motatako triangelua da laranja?

- A. Aldekidea
- B. Zuzena
- C. Isoszelea
- D. Zorrotza




2. Irudian Nafarroako Museoaren lehen solairuaren planoak ageri da. Azalerarik handiena duen aretoa da...

- A.  aretoa
- B.  aretoa
- C.  aretoa
- D.  aretoa



Begira iezaiozu Iruñeko Alde Zaharraren planoari. Hurrengo bi galderei erantzuteko erabiliko duzu.



**3.** Zer bi kale dira perpendikularrak?

- A. Hilarión Eslava kalea eta Kale Nagusia
- B. Kale Berria eta San Frantzisko kalea
- C. Estafeta kalea eta Calderería kalea
- D. Kale Nagusia eta Jarauta kalea

**4.** Turista bat Nafarroako Museotik atera da eta ostatu ematen dion etxera abiatu da. Begira iezaiozu irudiari eta jarrai itzazu jarraibideak.

- Santo Domingo kaletik doa eta Udaletxe enparantzara iritsi da.
- Ezkerretara bira egin eta Mercaderes kalean aurrera doa.
- Eskuinetara dagoen bigarren kalea hartu du eta bere etxera iritsi da.

Turistak zer kaletan hartu du ostatu?

- A. Kale Nagusian
- B. Txapitela kalean
- C. Estafeta kalean
- D. Kale Berrian

5. Turista 16:45ean sartu da Nafarroako Museoan eta 19:18an atera da. Zenbat denbora egon da barnean?

- A. Ordu 1 eta 3 minutu
- B. Ordu 1 eta 33 minutu
- C. 2 ordu eta 3 minutu
- D. 2 ordu eta 33 minutu



6. Aurreko asteazkenean museo horretara etorri ziren 24 ikasleko 4 talde eta 19 ikasleko 3 talde. Museoak 9 ikasleko taldetan antolatu zituen. Zenbat talde antolatu ziren?




Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

Eragiketak:

7. Begira iezaiozu taulari. Aste honetan Nafarroako Museoa bisitatu duten ikasle kopuruaren datuak dituzu.


| Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala |
|-----------|------------|----------|----------|
| 28        | 22         | 30       | 16       |

Adieraz itzazu datu horiek barra-diagrama batean.



8. Asierrek, Irunek eta Martak elkarrekin pintatuko dute irudiko lamina; horretarako, 6 puska berdinetan zatitu dute.

- Asierrek Martak baino puska gutxiago pintatu ditu.
- Irune izan da puska gehien pintatu dituen.
- Hiruen artean lamina osoa pintatu dute.



Laminaren zer zatiki pintatu du bakoitzak?

Asierrek pintatu du

Martak pintatu du

eta Irunek pintatu du



- 9.** Gaur ikastetxe bateko 40 ikasle etorri dira Nafarroako Museora. Ikasleetatik  $\frac{3}{5}$  1. solairuan daude eta gainerakoak, berriz, 2. solairuan. Zenbat ikasle daude 2. solairuan?

Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

Eragiketak:

- 10.** Kalkula ezazu zenbat bisitari etorri ziren abenduan Nafarroako Museora, honako pista hauek kontuan izanda:

- Hiru zifrako zenbakien artean izan daitekeen handiena da.
- Zifra guztien batura hogeia da.
- Zifra guztiak desberdinak dira.

Idatz ezazu laukitxo bakoitzean dagokion zifra.

bisitari

- 11.** Zenbat orduz egonen da irekita Nafarroako Museoa 2020ko maiatzaren 1etik 7ra, bi egun horiek barne direla?

| Maiatza 2020 |     |     |     |     |     |     |
|--------------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| Al.          | As. | Az. | Os. | Or. | Lr. | Ig. |
|              |     |     |     | 1   | 2   | 3   |
| 4            | 5   | 6   | 7   | 8   | 9   | 10  |
| 11           | 12  | 13  | 14  | 15  | 16  | 17  |
| 18           | 19  | 20  | 21  | 22  | 23  | 24  |
| 25           | 26  | 27  | 28  | 29  | 30  | 31  |

| Nafarroako Museoaren ordutegia                                                                 |                                  |
|------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------|
| <b>Asteartetik larunbatera:</b>                                                                | 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00. |
| <b>Igande eta jaiegunetan:</b>                                                                 | 11:00 - 14:00                    |
| <b>Jaieguna:</b> maiatzaren 1a.                                                                |                                  |
| <b>Itxita:</b> astelehenetan, urtarrilaren 1ean, uztailaren 6an eta 7an, eta abenduaren 25ean. |                                  |

Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

Eragiketak:

- 12.** Museoan egon garen bitartean artelanei 150 argazki egin dizkiegu. Album bat egin nahi dugu eta orrialde bakoitzean 3 argazki jarriko ditugu. 28 orrialde bete ondoren kalkulu hauek egin ditugu:

$$28 \times 3 = 84$$


$$150 - 84 = 66$$

**66 zenbakiak zein galderari erantzuten dio?**

- A. Zenbat argazki izanen ditu azken orrialdeak?
- B. Zenbat orrialde izanen ditu albumak?
- C. Liburua bukatzeko zenbat orrialde falta zaizkigu?
- D. Zenbat argazki jartzea falta zaigu?

**13.** Begira iezaiozu artelan honi. Zenbat karratu ikusten dituzu?

- A. Bat ere ez
- B. 1
- C. 3
- D. 6



**14.** Arte garaikideko erakusketa batean irudiko obra jarri dute. Lerro gorriarekiko simetrikoa da?

- A. Bai
- B. Ez
- C. Lerroaren loditasunaren arabera da
- D. Lerroaren kolorearen arabera da



**15.** Begira iezaiozu Eduardo Torroja institutuan dagoen eskultura honi. Hamabi aurpegi ditu, tamainaz eta formaz berdinak direnak. Zer forma dute bere aurpegiak?

- A. Heptagono batena
- B. Hexagono batena
- C. Oktogono batena
- D. Pentagono batena



- 16.** Irudian Pablo Picassoren “Gernika” obra ageri da. Zein da bere perimetroa?



| “Gernika” obrari buruzko datuak |                                     |
|---------------------------------|-------------------------------------|
| Data                            | 1937                                |
| Teknika                         | Oihal gaineko olio-pintura          |
| Neurriak                        | Altuera: 349 cm<br>Zabalera: 777 cm |
| Kategoria                       | Pintura                             |

**Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.**

Eragiketak: